

Genero-ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan. Ekintza-proposamenak

Zuzendaria: Inés Sánchez de Madariaga

Laguntzaileak: Sonia De Gregorio Hurtado, Inés Novella Abril

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Genero
Berdintasunerako Politiken UNESCO Katedra

Sustatzailea:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Edukien aurkibidea:

Sarrera

- 1) "Genero-ikuspegia, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zeharkako jarduketaremu gisa" izeneko 4.1 atala berrikustea eta hura berriz idatz dadin proposatzea;
- 2) Euskal Autonomia Erkidegoan genero-ikuspegia instituzionalizatzeko zeharkako neurriak proposatzea;
- 3) Generoaren esparruan ekintzak eta neurriak txertatzeko lehentasunezko eremuak identifikatzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan gaineratutako 8 eremuen artean;
- 4) Identifikatutako lehentasunezko ekintza-eremu bakoitzerako ekintza-lerroak/neurriak proposatzea;
- 5) Proposatutako ekintza zehatzen deskribapen-fitxak egitea.

Hitzaurrea

Partaidetzara irekitako Aurrerapen-proposamen gisa aurkeztutako EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) Berrikuspenerako Oinarrizko Dokumentua abiapuntutzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak modu zabalagoan eta sakonagoan garatu nahi du "4.1. Genero-ikuspegia" jarduketa-eremu horizontala, proposamen eta ekintza zehatzen bitartez. Horretarako, honako azterlan hau eskatu dio Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Genero Politiken UNESCO Katedrari.

Azterlan honen helburua ohar praktiko batzuk eskaintzea da, hala, genero arloko lurralde-orientazioak LAGen Oinarrizko Dokumentuko zein edukitara txerta daitezkeen eta horiek nola txertatu jakiteko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko udalaz gaindiko nahiz udal esparruko antolamenduan genero-berdintasunaren xedea berriaz eta ikusteko moduan txertatzeko helburuarekin.

Genero-ikuspegia terminoa *gender mainstreaming* kontzeptuaren euskarazko itzulpen bat da, *transbertsalizazio* gisa ere itzuli izan den arren. Nazio Batuek termino hori onartu zuten 1995eko *Pekingo Emakumeen Mundu Konferentzian*, Europak 1998ko *Amsterdamgo Tratatuan*, eta Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan, Europako zuzentarauak aplikatzen dituzten zenbait legetan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* bitartez eta Estatuko *Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren* bitartez batez ere. Oso garrantzitsua da, halaber, *30/2003 Legea, urriaren 13koa, Gobernuak egingo dituen arauetan genero-eraginaren ebaluazioa txertatzeko neurriei buruzkoa*.

Generoaren *mainstreaming* hori ekintza-printzipio bat da gizon eta emakumeen arteko berdintasun-politiketarako, eta berdintasun-politiken aurreko bi ikuspegiei gehitu behar zaie –berdintasuna legearen aurrean eta emakumeei bideratutako ekintza zehatzak–.

Hura politika- eta administrazio-ekintzaren printzipio gisa hartzeak bi ikuspegi horiek dituzten mugei erantzuten die; horrela, hura ikuspegi horietara gehituko da, baina ez ditu ordezkatu. Generoaren *mainstreaming*-ak genero-ikuspegia honako esparru hauetan txertatu beharra finkatzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiken ekintza-printzipio gisa: i) politika publikoen ekintza-eremu guztietan, hau da, politika sektorial guztietan, eta kasu honetan, lurralde-antolamenduari dagozkion politketan (politika horiek erakunde eskudunek genero-berdintasunaren eta/edo emakumeen esparruan gauzatutako ekintzak osatzen dituzte); ii) eta zikloaren egoera guztietan, hau da, diseinuan, programazioan, aurrekontuen prestaketan, plangintzan eta exekuzioan, ebaluzioan eta jarraipenean.

Generoaren kontzeptua 1960ko hamarkadan garatu zen, pertsonen *sexu biologikoa* aurretiaz zehaztutako genero-rol eta -itxaropen zurruneekin lotzen duen determinismo biologiko bati aurre egiteko helburuarekin. Generoaren kontzeptuak *genero-rol* –hau da, jarrerai eta portaerai– forma ematen dieten faktore soziokulturalak faktore biologikoetatik bereiztea ahalbidetzen du. Genero-rolak –jarrerak eta portaerak– ikasi egiten dira, eta, beraz, ez dira finkoak edo unibertsalak: etengabe aldatzen dira garai, leku eta kultura bakoitzaren arabera; aldatu egiten dira gizarte-testuinguruaren arabera, lantokian eta etxean, adibidez; eta, azkenik, beste faktore batzuekin batera jarduten dute, hala nola, adinarekin, estatus sozioekonomikoarekin, etniarekin eta arrazarekin, beste faktore batzuen artean (generoak beste faktore horiekin batera jarduten duenean, hari zeharkakotasun deitzen zaio).

Dokumentu honen helburua generoaren *mainstreaming* printzipioa lurralde-antolamenduaren eremuan aplikatzera bideratutako ekintzak proposatzea da, betiere euskal legeriak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak idazteko zehazten dituen eskumenak kontuan hartuta. Proposamenen dokumentu honetan, ekintzen **lehentasunezko hautaketa estrategiko** bat egitea erabaki da. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan jasotzen diren ekintza-eremu guztiak sistematikoki jorratu nahi izatearen aukera alde batera uztea erabaki da.

Aukera horren arrazoia eraginkortasuna da. Aukera estrategiko hori generoaren *mainstreaming*-ak Europar Batasuneko herrialdeen testuinguru geografikoetan eta politika-eremuetan izan duen esperientzian (zeharkakotasuna) oinarritzen da. Izan ere, esperientzia horrek argi eta garbi utzi du jarduketa-espekto zabalegia jorratu nahi izateak bere arriskuak izan ditzakeela, azkenean, horrek ekintzen eragina murriztu baitezake. Generoaren esparruko jarduketa aitzindarietan, kasu honetan bezala, oso garrantzitsua da aukeratutako ekintzen **arrakasta** eta **aplikagarritasuna** bermatzea. Izan ere, oso zaila da ekintza-programa zabalegiak ezartzea. Era berean, ekintza-kopurua txikiagoa denean eta horiek behar bezala sailkatuta daudenean, programa osoaren **ikusgaitasuna** handiagoa izan daiteke. Ekintzen ikusgaitasun positiboa oso garrantzitsua da, programaren exekuzioak eta jarraitutasunak jasotzen duen babes soziala eta politikoa sustatzen eta bermatzen baitu.

Generoaren *mainstreaming*-ak **egiturazko aldaketa** esanguratsuak eragiten ditu politika sektorial guztien garapenean. Horrek gauzak egiteko moduen funtsezko aldaketak eragiten ditu administrazio publikoen aldetik, eta denbora, sentsibilizazioa eta prestakuntza behar duten eta, askotan, erresistentziei, oztopoei, estereotipoei eta joera kontzienteei nahiz inkontzienteei aurre egin behar izaten dieten aktoreen aldetik.

Horregatik, azterlan honetan eskaintzen dugun planteamendua honako premisa honetan oinarritzen da: lurralde-antolamenduaren sektorean genero-politika bat txertatu ahal izateko honako alderdi hauek barne hartuko dituzten **oinarri** sendoak eraiki behar dira lehenengo:

- i) **Oinarrizko neurriak**, edo generoaren *mainstreaming*-ean batzuek “egiturazko aldaketarako alde aurretiko baldintzak edo funtsezko elementuak” izendatu dutena. Lurralde-antolamenduan generoaren *mainstreaming*-politika bat instituzionalizatzeko oinarriak finkatzea bezalako zerbait izango litzateke.

- ii) **Inpaktu handiko ekintzen** hautaketa. Ekintzek jardun urbanistikoan eraldaketa garrantzitsuak eragin ditzaketelako –genero-premien ikuspuntutik– edo ikusgaitasun handiko ekintzak direlako izan dezakete inpaktua; izan ere, azken horiek, proiektu pilotuak diren heinean, lurralde-antolamenduan genero-politiken eraginkortasuna eta interesa ikustea ahalbidetzen duen nolabaiteko demostrazio-efektua izaten lagun dezakete.

Horregatik, azterlanak genero-ikuspegia txertatzea lehentasunezko alderditzat jotzen dituen eremuak azpimarratzea proposatzen du, hirugarren atalean adierazten den moduan, honako helburu global hauekin:

- i) Plangintza-praktika trinko bat abian jartzea; hark genero-ikuspegia txertatuko du lurralde- nahiz udal-jarduketan, eta errotzen eta sendotzen joan ahal izango da denbora igaro ahala;
- ii) Genero-ikuspegiaren bitartez, LAGen Berrikuspenerako Oinarrizko Dokumentuarekin lortu nahi den lurralde-ereduaren oinarrietan laguntzea, batez ere sozialki integratzailea eta parte-hartzailea izango den lurralde jasangarria eraikitzeko;
- iii) Estrategikotzat jotzen diren neurriak txertatzea, denbora-tarte nahiko laburrean eragin ditzaketen inpaktua eta ikusgaitasuna direla eta. Neurri horiek erakusgarritzat hartzen dira, eta horien efektuak eginkizun "didaktikoa" izan dezake instituzioen, erakundeen eta enpresen aurrean, baita herritarren aurrean ere; hala, genero-ikuspegia lurralde-plangintzan eta hirigintzan txertatzeak herritar guztien bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duela frogatuko da.

Era berean, azterlan honek are eduki gehiago eman nahi dio genero-ikuspegia LAGen zeharkako eremu gisa aurkezten duen Oinarrizko Dokumentuaren zatiari, betiere hark zeharkako gainerako eremu guztiek gaur egungo testuan duten pisu bera izan dezan. Horretarako, testu bat garatu da eta, bertan, "Alderdiaren egoera" azaltzen duen zatiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza non oinarritzen den adierazten du,

baita genero-ikuspegia lurralde-antolamenduan txertatzeak berdintasunaren helburua lortzen laguntzeko, eta herritar guztien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko lurraldeak eta hiriak sortzeko duen gaitasuna ere, horiek izan ditzaketen desberdintasun-ardatzak denak direla (sexua, adina, maila sozioekonomikoa, etnia, arraza eta abar).

Hala, bada, azterlanak honako eginkizun nagusi hauek jorratuko ditu:

- 1) "Genero-ikuspegia, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zeharkako jarduketa-eremu gisa" izeneko 4.1 atala berrikustea eta berriz idatz dadin proposatzea;
- 2) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan genero-ikuspegia instituzionalizatzeko zeharkako neurriak proposatzea.
- 3) Generoaren esparruan ekintzak eta neurriak txertatzeko lehentasunezko eremuak identifikatzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan gaineratutako 8 eremuen artean;
- 4) Identifikatutako lehentasunezko ekintza-eremu bakoitzerako ekintza-lerroak/neurriak proposatzea;
- 5) Proposatutako ekintza zehatzen deskribapen-fitxak egitea.

1. Genero-ikuspegia, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zeharkako jarduketa-eremu gisa izeneko atalaren berrikuspena eta berriz idazteko proposamena

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hau dio 18.1. artikuluan: "Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-agintek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua". 18.1. artikulua *Amsterdamgo Tratatuak* emandako *genero-zeharkakotasunaren* printzipioari erantzuten dio (ingelesezko *gender mainstreaming* terminoaren itzulpena), Europar Batasuneko estatuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak aplikatzeko printzipio gidari gisa. Era berean, *genero-zeharkakotasunaren* printzipioa Estatuko bi lege garrantzitsutan jasotzen da: *emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Gobernuak prestatzen dituen xedapen arauemailetan generoaren eraginaren balorazioa sartzeko neurriei buruzko urriaren 13ko 30/2003 Legean*.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiken zeharkakotasun-printzipioa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko LAGek zeharkako eremu gisa txertatzen dute genero-ikuspegia. Esperientzia aitzindaria da Espainian eta nazioartean, eta horregatik, LAG horien bidez txertatutako neurriek genero-dimentsioen instituzionalizazio sendoa lortzeko oinarriak finkatzea ahalbidetuko dute hirigintza-eta lurralde-jardunetan. Era berean, LAG horiek hirigintza-praktikak eraldatzera xedaturiko egiturazko neurri batzuk txertatuko dituzte, baita izaera erakusgarriagoa izango duten eta inpaktu eta ikusgaitasun handia izango duten beste batzuk ere; azken horien helburua lurralde-politiken ikuspegi berri horrekin lotutako adostasun eta babesak eraikitzea izango da, baita ikuspegi horrek gizarte osoari eragiten dizkion inpaktu positiboak ikusgai egitea ere.

Genero-ikuspegia hirigintzan eta lurralde-antolamenduan txertatzeko orduan, honako faktore hauek hartu behar dira kontuan alderdi nagusi gisa:

1. **Genero-rolek, ordaindu gabeko lanak eta sexuaren araberako lanaren banaketak** gizonek eta emakumeek egiten duten hiriaren erabilera desberdinean duten inpaktua

Beren egunerokotasunean bereganatzen dituzten *genero-rolen* eraginez, pertsonak premia eta helburu desberdinak dituzte lurraldeari eta hiri-eremuari dagokienez. *Ordaindu gabeko lana* eta *sexuaren araberako lanaren banaketa* gako-kontzeptuak dira zentzu horretan. *Ordaindu gabeko lana*, edo *zaintza-lana*, pertsona helduek mendeko pertsona zaharrak eta adingabeak zaintzeko eta etxea mantentzeko eremu pribatuan egiten duten inolako konpentsazio ekonomikorik gabeko lana izango litzateke. *Sexuaren araberako lanaren banaketa* pertsonen sexuaren arabera eginkizun desberdinak esleitzea izango litzateke. Estatistiken arabera, ordaindu gabeko zaintza-lan gehienak emakumeek gauzatzen dituzte.

Denboraren erabilerari buruzko inkestetako datuen arabera, denboraren erabilera desberdina da gizonen eta emakumeen artean, horiek beren egunerokotasunean bereganatzen dituzten genero-rolen eraginez, hain zuzen ere. Emakumeek *zaintza-lanak* deituriko lan gehienak bereganatzen dituzte, hau da, etxearen, seme-alaben, gaixorik dauden senitartekoen eta pertsona zaharren zaintzarekin lotutako lanak, eta gizonek eginkizun horren oso zati txiki bat gauzatzen dute oraindik ere. Estatistikek bilakaera txiki bat islatzen dute emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien genero-rol desberdinei dagokienez: gizonek gizarte-birsorkuntzarekin lotutako eginkizun gehixeago bereganatzen dituzte, igoera hori txikia izan arren. Dena den, enpleguaren esparruan emakumeen partaidetzaren igoera jarraitua hautematen da, eta beraz, dagoeneko gutxiengo bat dira ekoizpen-sektorean jarduerarik betetzen ez duten emakumeak.

Emakumeak lan-merkatuan txertatu dira pixkanaka, baina gizonen txertaketa paraleloa ez da esanguratsua izan etxeko lanei eta zaintza-lanei dagokienez. Gainera, lan-bizitza beste pertsona batzuen zaintzarekin bateragarri egitea erraztuko duten

politika publiko garrantzitsuak (gizarte, hirigintza eta lan arlokoak) ez dira behar adina garatu. Faktoreen konbinazio hori dela-eta, pertsona askok –gehienak emakumeak– lan-karga bikoitza izaten dute, beren egunerokotasunean, etxean nahiz etxetik kanpo.

Ordaindutako eta ordaindu gabeko lan-karga bikoitzak pertsona askoren premiak eta itzaropenak finkatzen ditu, gehienetan emakumeak, eremu publikoari, garraioari, ekipamenduei (lurralde eta hiri alorrekoak), lanpostuei eta merkataritzari, eta etxebizitzari dagokienez. Eguneroko bizitza mantendu ahal izateko egiten den lana ugalketa-lanarekin lotutako eginkizunak gauzatzen diren lekuetan egiten da: hezkuntza, osasuna, kirola, aisialdia, erosketak, izapideak eta administrazio-kudeaketak, eta abar. Leku horietara joateko, zaintza-erantzukizunak dituzten pertsonak eskura dituzten garraio-sistemak erabili behar dituzte leku batetik bestera joateko. Hori eginkizun bakoitzak eskatutako ordutegietan eta denboretan egin behar daiteke, egunean zehar, astean zehar edo hilabetean zehar. Gainera, lanpostu bat duten pertsonen kasuan horrek guztiak bateragarria izan behar du enplegu ordaindura sarbide fisikoa izatearekin. Enplegu ordaindua beste batzuen zaintzarekin bateratzen duten pertsonak garraioaren, ekipamenduen eta zerbitzuen, etxebizitzaren eta lanpostuen oso erabilera-patroi desberdinak dituzte zaintza-erantzukizunak bereganatzen ez dituzten pertsonen erabilera-patroiekin alderatuta. Zaintza-lanak bereganatzen ez dituzten pertsonak hiriaren erabilera mugatuagoa egiten dute, eta hura enplegu- eta aisialdi-lekuetara mugatzen da.

Beste kontzeptu operatibo erabilgarri batzuen artean, *egunerokotasuna* eta *eginkizunen katea* ditugu. Egunerokotasunaren kontzeptuak pertsonak hirian dituzten eguneroko premiak islatzen ditu, eta enplegua beste batzuen zaintzarekin bateratzen duten pertsonak betetzen dituzten eginkizun anitzak jasotzen ditu. Egunerokotasunaren kontzeptuak eguneko, asteko, hilabeteko edo bizitza osoko denbora-zikloetan hiri erabiltzeko orduan sortzen diren erregularitasunak edo *eginkizunen kateak* ulertzea ahalbidetzen du. Hori oso garrantzitsua da lan-karga bikoitza gauzatzen duten pertsonentzat, egunerokotasuneko jarduerak eguneko

aldizkakotasunak izaten baitituzte, baina baita astekoak edo hilekoak ere; gainera, eginkizunen kateak desberdinak izaten dira, askotan, asteko egun batean edo bestean.

Denbora-ikuspegi zabalago batetik, pertsonen bizi-zikloak duela hamarkada gutxi baino askoz gehiago aldatzen dira. Gainera, oso modu desberdinean aldatzen dira gizon eta emakumeen artean, genero-rolen eraginez. Gizonen nahiz emakumeen artean gero eta ohikoagoa da lan-bizitzako aldiak lanik gabeko aldiekin edo prestakuntza-aldiekin txandakatzea; dena den, emakumeek beren bizitzako aldi luzeak xedatzen dituzte, oraindik ere, beste pertsona batzuen zaintzara, jarduera nagusi gisa.

Enplegua zaintzarekin bateratzen duten pertsonen egunerokotasuneko eginkizunen kate horietatik eratorritako hiriko premia zehatzak behar bezala islatzen dira hirigintzako esparru sektorialetan –mugikortasuna, azpiegiturak eta ekipamenduak, lantokiak eta merkataritza, etxebizitza, eremu publikoak–, eta horiek behar bezala hartu behar dira kontuan lurralde-plangintzan eta hirigintzan. Nazio Batuen eta Europako Batzordearen gisako nazioarteko erakundeek hirigintza eta lurralde-antolamendua adierazi dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez aurrera egiteko politika publikoaren funtsezko esparru gisa.

2. Gizonek eta emakumeek eremu publikoko eta garraioko segurtasunari dagokionez duten pertzepzio desberdina, eta horrek emakumeek hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzeko orduan eragiten duen inpaktu negatiboa

Genero-ikuspegitik, hiriaren beste alderdi garrantzitsu bat eremu publikoko eta garraioko segurtasunarekin lotuta dago, baita pertsonen duten segurtasun-pertzepzioarekin ere. Azterketa askok frogatzen duten moduan mugatu egiten dute emakumeek beren mugikortasuna eta egiten duten hiri-eremuaren erabilera, ez dutelako segurtasunik sentitzen sexu-erasoak eta haien kontrako beste indarkeria-

mota batzuk jasateko arriskuaren aurrean (VAW, Violence Against Women – NBE-Emakumeak erakundearen terminologiaren arabera). Emakumeek mugak ezartzen dizkiete beren buruei osotasun fisikoan eta pertsonalean arriskurik ez jasateko, eta horrek nabarmen murrizten ditu horien garapen pertsonalerako eta profesionalerako aukerak. Hala, hori pertsonaren erabateko garapenerako oztopo bat bihurtzen da, hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzeko eskubidea murrizteaz gain.

Azterlanen arabera, segurtasun arloan garrantzitsuena ez dira salaketa polizialen edo gauzatutako krimenen estatistikak, eremu edo leku bat segurua dela edo ez dela hautematen duen pertzepzioa baizik. Horrenbestez, alderdi hori ez da emakumeei eremu publikoan gauzatutako sexu-erasoen edo bestelako erasoen estatistiken bitartez kontuan hartu behar, emakumeen hiriko esperientziaren bitartez baizik.

3. Emakumeen pobrezia erlatiboa eta faktore horrek beste diskriminazio-ezaugarri batzuekin duen elkarrekintza: egoera zibilarekin lotutako familia-kargak (familia gurasobakar amadunen eta pertsona bakarreko familien kasuan), arraza, adina, gaitasun funtzionala, genero-indarkeriaren biktimak

Gizonek eta emakumeek hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzeko dituzten aukera desberdinetan eragiten duen beste alderdi garrantzitsu bat horien gaitasun ekonomikoan oinarritzen da. Emakumeek gizonek baino gaitasun ekonomiko txikiagoa dute, eta horrek hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabili ahal izateko aukerak murrizten ditu.

Emakumeen gaitasun ekonomiko txikiagoak honako faktore hauetan du jatorria, besteak beste: generoaren araberako *soldata-arrailean*; lan-merkatuetako *bereizketa horizontalean*, emakumeak prestigio gutxien duten eta gutxiago ordaintzen diren sektoreetan pilatzen baititu; *segregazio bertikalean*, maila baxuko eta, beraz, soldata baxuko lanpostuetan pilatzen baititu, sektore guztietan; emakumeak lanaldi partzialeko behin-behineko lanpostuetan pilatzen dira; horien langabezia-tasa handiagoetan; bizitza osoan zehar izaten dituzten lanik gabeko denboraldi

luzeagoetan, enplegu ordaindua uzteko premia eragiteaz gain, horrek pertsona zaharren, adingabeen edo mendekotasuna duten pertsonen zaintza-lanak bereganatzea esan nahi baitu. Faktore horiek guztiek *pobreziaren feminizazioa eragiten dute; horrek familia gurasobakar amadunetako emakumeei eragiten die batez ere* (pertsona heldu bakar bat buru duten familia gehienak familia gurasobakar amadunak dira).

Familiako buru diren emakumeez gain, bereziki zaugarriak dira orobat genero-indarkeriaren biktimak, emakume zaharrak, emakume beltzak eta gaitasun funtzional murriztua duten emakumeak. Emakume horiek etxebizitzarekin, garraioarekin, eremu publikoarekin, lanpostuekin eta ekipamenduekin lotutako premia zehatzak izaten dituzte.

4. Emakumeek oso ordezkariak txikia dute hiriko eraikuntzarekin eta lurralde-gobernuaren egiturekin lotutako lanpostuetan; eta ez dago generoaren ezagutza aditurik

Emakumeek oso ordezkariak baxua dute hirigintzako, arkitekturako eta ingeniarietako lanpostuetan. Azken urteetan hirigintza eta arkitekturako azterlanak nabarmen feminizatu badira ere –emakumeen presentzia % 50etik gorakoa da Espainiako arkitektura-ikastetxeetako ikasleen artean–, arkitekto eta hirigile emakumeen belaunaldi horiek beren ikaskide gizonezkoek baino zailtasun gehiago izaten dituzte lan-merkatuan txertatzeko, eta tituludun emakume horietako askok alde batera uzten dute lanbidea. Datuek eta horiek azken urteetan izan duten bilakaerak ez dute baikorrak izateko arrazoirik eskaintzen. Emakumeak erabakiak hartzeko gaitasun gutxi duten lanpostu ezegonkorretan pilatzen dira, eta horrek, lanbidea alde batera uztearekin batera, Espainiako arkitekto eta hirigile emakume askoren errealitatea izaten jarraitzen du.

Erabakiak hartzeko gaitasun profesionala duten emakumeen presentzia baxuak jardun profesionalean eragiten du, eta beraz, baita eraikitzen den horretan eta

eraikitzeke moduan ere. Faktore horrek lanbidearen eraikuntza "maskulinoan" eragiten du, baita kulturaren, lehentasunetan, erantzun beharreko arazoetan eta horiei emandako erantzunetan ere. Nolanahi ere, emakume gehiago egoteak ez du esan nahi emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren agendak eta generoarekin lotutako gaiak arreta hobea jasotzen dutenik. Agendetan eta kultura profesionaletan aldaketak eragin daitezke, masa kritiko bat –emakumeen kopuru nahikoa– eta genero alorreko ezagutza aditua behar dira. Genero arloko ezagutza aditua gizonen nahiz emakumeen aldetik eragin daiteke, estatistikaren arabera, espezialitate profesional hori duten pertsona gehienak emakumeak izan arren.

"Zaintzaren hirigintzarako" hiri-eredua

Faktore horiek guztiek lurralde-antolamenduak eta plangintzak kontuan hartu beharreko ondorio espazialak dituzte. Genero-ikuspegia lurralde- eta hiri-plangintzan txertatuz gero, eremu publikoak, ekipamenduak, etxebizitza eta abar beste modu batera pentsatzen dira, familiaren zaintzarekin lotutako eguneroko eginkizunak bete eta lan ordaindua ahalegin eta zailtasun gutxiagorekin egin ahal izateko moduan, hain zuzen ere; era berean, eremu publikoak eta garraioak seguruak izan behar dute, zaurgarritasun-egoeran bizi diren emakumeen espazio- eta hiri-premiak –gaitasun ekonomikoarekin lotutako mugak barne– kontuan hartu behar dira, hala, herritar guztien bizi-kalitatea hobetuko duten lurralde eta hiri seguruagoak eta bidezkoagoak sortzeko.

Gainera, genero-ikuspegia plangintzan txertatzeak badu beste helburu bat, emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan duten gaitasuna bermatzea, hain zuzen ere, tradizioz, horien ikuspuntuak gutxi irudikatu izan baitira erabakiak hartzeko orduan. Horretarako, oso garrantzitsua da horiek erantzukizuneko lanpostuak lortu eta udalaz gaindiko nahiz udaleko plangintzan parte har dezatela sustatzea.

Zaintzaren kontzeptuak eta hark lurralde-antolamenduan eragiten dituen ondorioak generoaren ikuspegitik funtsezkoak direla kontuan hartuta, dokumentu hau

jorratzeko orduan *zaintzaren* kontzeptua funtsezko ardatz gisa hartzea proposatzen dugu, proposamenak haren inguruan artikulatuz. Beherago aurkezten diren ekintza-gomendioak *zaintzak* lurraldearen plangintzan, eraikuntzan eta kudeaketan eragiten dituen ondorioetan oinarritzen dira.

Zaintzaren premiei hobeto erantzungo lieken hiri-eredua nahiko hiri trinkoa izango litzateke, honako hauek eskaintzen dituena: distantzia motzak eta gertutasuna, garraio-sistema publiko egokia, kalitatezko espazio publiko eta garraio seguruak, erabileren nahasketa, eta auzoetan ekipamendu-sistema egokia izango duena adingabeen eta mendeko pertsona zaharren zaintzarako beharrezko ekipamenduak izango dituena, Estatuko ohiko plangintza-sistemak jasotzen dituen betiko asistentzia-, eskola-, osasun-, hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduez gain. Enplegu ordaindua *zaintza*-lanekin bateragarri egitea ahalbidetuko duen hiri bat izango litzateke, erantzukizun bikoitza bereganatzen duten pertsonen nabarmen lagunduko babiliztaieke lanpostuetara eta beharrezko ekipamenduetara sarbidea izatea, denbora-tarte txikietan, beharrezko ordutegietan, erosotasun- eta segurtasun-baldintzetan, eta kostu ekonomiko onargarrietan.

Helburuak

Genero-ikuspegia honako politika-eremu hauetan txertatzea da helburu nagusia:

1. Garraioa eta mugikortasuna (hirikoa eta eskualdekoa).
2. Gertuko hirigintza.
3. Egunerokotasunerako eremu publikoak eta ekipamenduak (zentro eta ekipamendu komertzialak barne).
4. Segurtasuna.
5. Etxebizitza.
6. Landa-ingurunea.
7. Partaidetza.
8. Gizartean genero-berdintasunarekin lotutako sentsibilizazioa sustatzea.

9. Generoaren ikuspegia hiri- eta lurralde-politiketan txertatzeko gaitasun lokala eta instituzionala sor dadila sustatzea.

Lurralde-orientabideak

Genero-ikuspegia lurralde-antolamenduan eta hirigintzan txertatzeko, honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Lurraldea planifikatzea, egiten diren erabilerak –batez ere egunerokotasunerako beharrezkoak direnak– arazoizko distantzia batzuetara kokatuz, hartara joan-etorriak ibilgailu bidez egiteko premia murrizteko edo denbora-tarteak ahal den neurrian laburtzeko. Ikuspegi horrek lurraldearen izaera polizentrikoa sustatzea eragiten du, LAGen Berrikuspeneko Oinarrizko Dokumentuaren ikuspegian oinarrituz; bertan funtsezkotzat jotzen da hiri ertainek zerbitzuen zentro aglutinatzaile eta eskaintzaile gisa duten protagonismoa berreskuratzea. Izan ere, horiek funtsezkoak dira nukleo txikiagoetan bizi diren gizon eta emakumeen zaintza-lanaren garapena errazteko.
2. Hiri konplexua eta gertutasunekoa sustatzea, behar bezala hornitutako auzo seguruetan oinarritua; auzo horiek garraio publiko bidez konektatuta egongo dira hiriko eta lurraldeko beste zatiekin. Ikuspegi horren barnean, horien gizarte-funtzioa eta herritarrek egiten duten erabilera eutsi eta sostengatuko duten eremu publiko dinamikoak eta seguruak sustatuko dira. Horiek planifikatu eta diseinatzeko orduan, emakumeen, pertsona zaharren eta haurren premiak hartu beharko dira kontuan (bi sexuen arteko premia desberdinak aintzat hartuta).
3. Behar adina dentsitate izango duen eta erabileren beharrezko nahasketa ahalbidetuko duen hiri-eredu bat sustatzea, egunerokotasunerako beharrezko ekipamenduetara oinez iristeko aukera eskainiko duena eta garraio publiko eraginkorra izango duena, hala, ibilgailu pribatuz mugitzeko mendekotasuna murriztuz.

4. Garraioaren plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea, jarduera horietan mugikortasun-jarraibideak, bidaiatzeko modua, eta emakumeek egiten dituzten joan-etorrien denbora eta ordutegi arloko mugak kontuan hartuta. Era berean, oso garrantzitsua da horien irisgarritasun- eta segurtasun-premiak kontuan izatea.
5. "Zaintzaren mugikortasuna" sustatzea, beste pertsona batzuen zaintzarekin eta etxearen mantenuarekin lotutako bidaiak ahalik eta denbora-tarte txikienean, dagozkion denbora-tarteetan eta kostu onargarriekin egin ahal izan daitezela bermatuz, hala, pertsonak lan ordaindua zaintza-erantzukizunekin bateratu ahal izan dezaten.
6. Lurralde- eta hiri-plangintzan eremu publikoko segurtasuna funtsezko eskubide gisa txertatzea. Zentzu horretan, hiri-plangintzako edo hura berrikusteko prozesuek behar bezala jorratuko dituzte, partaidetza-prozesuen esparruan, gizarte-taldeek ez segurutzat edo "arriskutsutzat" jotzen dituzten puntuak, emakumeen, pertsona zaharren eta haurren kasuan batik bat (bi sexuen premia desberdinak aintzat hartuta).

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan genero-ikuspegia instituzionalizatzeko zeharkako neurrien proposamena.

Genero alorreko *mainstreaming*-politiken hasierako garapenak oinarrizko hainbat elementu edo alde zehatzetako zenbait baldintza eskatzen ditu lurralde-antolamenduko politikekin. Elementu horien artean funtsezkoak dira honako hauek:

1. Teknikarien prestakuntza

Generoaren, hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren esparruetan, autonomia-erkidegoko nahiz udalerriko teknikarien prestakuntza-plan sistematiko bat garatzea, hala, dokumentu honetan proposatutako ekintza zehatzak modu trinkoan gauzatu eta denboran mantentzeko daitezela bermatzeko.

2. Jarraipen-estatistikak eta -adierazleak

Ebaluazio- eta jarraipen-sistema bat definitzea, eta zein datu behar diren eta horiek zein iturritatik lor daitezkeen ikustea. Behar bezala zehaztu beharko litzateke zer neur daitezkeen, jarraipenaren arduraduna nor den, lehendik egindako estatistikekin zein datu lor daitezkeen eta zer sortu beharko litzatekeen. Kontuan hartu beharreko elementuak:

- Lehendik dauden estatistikak berrikusi behar dira: i) genero arloko omisioak eta joerak identifikatzeko; ii) joera eta omisio horiek murrizteko neurriak proposatzeko.
- Honako hauei buruzko datuak lehentasunezkoak dira: garraioa; mendeko pertsona zaharren eta adingabeen arreta eta premiak; familien buru diren eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek

etxebizitza bat eskuratzeko dituzten aukerak; eremu publikoan segurtasunik ez dutelako pertzepzio lurraldetua.

3. Sentsibilizazioa

Maila politikoan eta teknikoan erabakiak hartzeko gaitasuna duten pertsonen eta, oro har, teknikari guztien genero alorreko berdintasunik ezaren azpian dagoen problematika eta hari hirigintzatik eta lurralde-antolamendutik aurre egiteko premia erakustera bideratutako prestakuntza-blokeak eta -ekitaldiak garatzea, lurralde jasangarriagoa, integratzaileagoa, berritzaileagoa eta ekonomikoki dinamikoagoa lortzeko helburuarekin.

4. Difusioa

Difusioak barnekoa eta kanpokoak izan behar du, eta eragile garrantzitsu guztietara iritsi behar du. Honako hauek izango dira difusio-erreminta nagusiak:

- Eragile garrantzitsu guztien –sozietate zibila barne– irekita egongo den eta urtero edo bi urtez behin egongo den ekitaldia; bertan, egindako guztiaren berri emango da, aurkitutako problematikari buruzko hausnarketa egongo da; hari nola aurre egin erabakiko da, eta aurrerantzean gauzatu beharreko urratsak adieraziko dira.
- Argitalpenak egongo dira paperean nahiz web-orrietan (Eusko Jaurlaritza, udalak, gizarte zibilarekin lankidetzan jarduten duten erakundeak eta abar).
- Dokumentu horretan proposatutako ikuspegia eta jarduketak zehatzak hedatuko dituzten bideak.
- Tokiko praktika egokiak ikusgai egiteko sariak.
- Jardunbide egokiaren datu-basea, udalerriri guztien saritutako ekintzen eta horien emaitzen berri izan dezaten.

5. Hizkuntza eta ikonografia ez sexista

Autonomia-erkidegoetako nahiz udalerrietako ekintza instituzionalean hizkuntza eta ikonografia ez sexistak sustatzea, difusio-dokumentuetan eta dokumentu ofizialetan, eta seinaleztapenean batez ere.

3. Generoaren esparruan ekintzak eta neurriak txertatzeko lehentasunezko eremu tematikoak eta zeharkakoak identifikatzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan gaineratutako 8 eremuen artean

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek 8 eremu tematiko hauek gaineratzen dituzte:

1. Paisaia
2. Ingurune fisikoa
3. Landa-ingurunea
4. Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua
5. Mugikortasun jasangarria
6. Ura
7. Energia
8. Gobernantza

Aurreko atalean, genero-ikuspegia hirigintzan eta lurralde-antolamenduan txertatzeko orduan kontuan izan beharreko faktore nagusiak identifikatu ditugu:

1. Genero-rolen inpaktu desberdinak, ordaindu gabeko lanak eta sexuaren arabera lanaren banaketak gizonen eta emakumeen egiten duten hiriaren erabileran eragiten duten inpaktu desberdina;
2. Gizonen eta emakumeen eremu publikoko eta garraioko segurtasunari dagokionez duten pertzepzio desberdina, eta horrek emakumeen hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzeko orduan eragiten duen inpaktu negatiboa.
3. Emakumeen pobrezia erlatiboa eta faktore horrek beste diskriminazio-ezaugarri potentzial batzuekin duen elkarrekintza (familia-kargak, arraza, adina, gaitasun funtzionala, genero-indarkeriaren biktimak).

4. Emakumeek hiriko eraikuntzarekin eta lurralde-gobernuaren egiturekin lotutako lanpostuetan duten ordezkari-tza baxua; eta generoaren ezagutza aditurik eza.

Lau faktore nagusi horietatik LAG horiek egituratzen diren zortzi eremu tematikoak kontuan hartuta, LAGetan genero-ikuspegia txertatzeko lehentasunezko lau ekintza ondorioztatzen dira, argi eta garbi:

1. **Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua**
2. **Mugikortasun jasangarria**
3. **Gobernantza**
4. **Landa-ingurunea**

Genero-berdintasunaren esparruan honako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako lau eremu tematiko hauetan proposatuko dira ekintzak. LAGen gainerako eremu tematikoetan ere generoaren esparruko alderdi garrantzitsuak egon arren –energia, ura, paisaia, ingurune fisikoa–, eremu horietan ekintzarik ez planteatzea erabaki da, ekintza estrategikoaren eta eraginkorraren printzipioa dela eta. Ahalegin guztiak generoaren esparruko alderdiek garrantzia gehien duten eremuetan pilatuko dituen proposamen bat egitea erabaki da, LAGetan jasotzen diren gai guztiak estali beharrean.

Klima-aldaketaren zeharkako eremua

8 eremu tematikoez gain, LAGetan zeharkako bost eremu gaineratzen dira berritasun gisa; horietako bat dokumentu honetan jorratzen ari garen Generoa da, hain zuzen ere:

1. Genero-ikuspuntua
2. Klima-aldaketa
3. Osasuna
4. Euskara
5. Lurraldeen arteko interrelazioa

Klima-aldaketaren politikako genero-dimentsio garrantzitsuei buruz egin diren ikerketak kontuan hartuta –egokitzapenari nahiz hura arintzeari dagokionez, horiek formalki aitortu baitziren 2015eko Parisko COP21 Itunetan–, genero-ikuspuntua Klima Aldaketaren zeharkako eremuan txertatu beharra proposatzen dugu.

4. Identifikatutako lehentasunezko ekintza-eremu bakoitzerako ekintza-lerroen proposamena

Jarraian, arestian aipatutako lehentasunezko eremu bakoitzean garatzea proposatzen diren ekintza zehatzak zerrendatzen dira:

1. Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua

Hiri-inguruneko eta lurralde-antolamenduko desberdintasun esanguratsuenek honako eremu hauei eragiten diete: mendeko pertsonen zaintzarako ekipamenduen existentziari eta erabilgarritasunari; hiri-eremuen eta eraikinen erabilera-patroi desberdinei, pertsonak bereganatzen dituzten genero-rol desberdinak direla eta; bikoterik ez duten emakumeek etxebizitza bat lortzeko dituzten zailtasun handiagoei, talde zaugarriek batez ere, familia gurasobakar amadunek eta genero-indarkeriaren biktimek, esaterako; emakumeek eremu publikoan eta hiri-zuzkiduretan sentitzen duten segurtasunik eza handiagoari.

Honako ekintza estrategiko hauek proposatzen dira:

- Udal-plangintzan mendeko pertsona zaharrak eta adingabeak zaintzeko ekipamendu-zuzkiduretara xedaturiko lurzoru-erreserbak gaineratzeko nahitaezko adierazpenak prestatzea.
- Udalekin batera, mendeko pertsona zaharren eta adingabeen Zaintza Ekipamenduen Plan bat garatzea.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren (edo beste erakunde eskudun baten) eta udalen artean proiektu pilotuak gauzatzea, deialdi publikoko prozeduren bitartez.

- Genero arloko jarduketetarako finantza-pizgarriak sortzea, Eusko Jaurlaritzak udal esparruko programa, plan edo proiektuetarako eskaintzen duen baterako finantziazioaren bitartez.
- Genero-ikuspegia hiri-garapen berrietan eta hiria leheneratzeko jarduketetan txertatzeko lerro gidariak garatzea.
- Etxebizitza Planean txertatu beharreko neurri espezifikoak prestatzea.
- Emakumeekin eta beste talde sozial batzuekin (pertsone zaharrak, haurrak) egindako partaidetza-prozesuen bitartez, "ez segurutzat" jotzen diren lekuak identifikatzea.
- Eremu publikoen eta zuzkiduren proiekturako gidak prestatzea, betiere genero-ikuspegian oinarrituz, hura behar bezala aplikatu beharko baita Eusko Jaurlaritzak edo udalek sustatutako eraikuntza berrietan.

2. Mugikortasun jasangarria

Mugikortasun jasangarriarekin lotutako desberdintasun esanguratsuenek honako eremu hauei eragiten diete: pertsonen mugikortasun-patroiak aldatu egiten dira, estatistiken arabera, gizonek eta emakumeek bereganatzen dituzten genero-rolen arabera, eta beraz, emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dute garraio publikoa, arrazoi gehiagoren eraginez egiten dituzte bidaiak, bidaiak gehiago kateatzen dituzte eta gutxiago erabiltzen dute ibilgailu pribatua; beste pertsona batzuen zaintzarekin eta etxearen mantenuarekin lotutako bidaiak ez dira behar bezala kontabilizatzen estatistiketan.

Honako ekintza estrategiko hauek proposatzen dira:

- Mugikortasun-estatistikak genero-ikuspegian oinarrituz berrikustea, egon daitezkeen joerak ezabatu eta *zaintza*-lanekin lotutako mugikortasuna hobeto deskribatzeko.
- Mugikortasun Jasangarriaren esparruko eskualdeko nahiz udaleko plan berrietan edo lehendik daudenen berrikuspenetan genero-ikuspegia

txertatzea, betiere zaintzaren mugikortasunari dagokion kontzeptua aintzat hartuta.

3. Gobernantza

Gobernantzarekin lotutako desberdintasun esanguratsuenak honako eremu hauei eragiten diete: emakumeen presentzia txikiagoa da herritarren partaidetza-prozesuetan eta talde teknikoetan; generoaren ezagutza aditua txertatzeko orduan ahultasunak agertzen dira politiken, planen eta jarduketan diseinuari, exekuzioari eta jarraipenari dagozkion faseetan.

Honako ekintza estrategiko hauek proposatzen dira:

- Genero-ikuspegia gaineratzen duten herritarren partaidetza-prozesuak garatzea, emakumeen partaidetza sustatzeko helburuarekin.
- Sektore profesional garrantzitsuetan emakumeen lidergoa eta karrera profesionalak sustatzeko programak egitea.
- Autonomia-erkidegoetako eta udaletako administrazioetan dauden prozesuak berrikustea, erabakiak hartzeko prozesuko eta horien exekuzioko fase garrantzitsuetan genero-ikuspegia txerta dadila hobetzeko proposamenak egin daitezen.

4. Landa-ingurunea

Landa-ingurunearekin lotutako desberdintasun esanguratsuenek honako hauek eragiten dituzte: garraioa eta zerbitzuak, ekipamenduak eta lanpostuak erabiltzeko orduan sortzen diren genero arloko desberdintasunak; ekipamenduak eta zerbitzuak erabiltzeko orduan sortzen diren genero arloko premia desberdinak, zaintzaren kasuan batez ere, zerbitzu- eta ekipamendu-sarearen kapilaritatea dela eta; nekazaritza-jarduerako genero arloko desberdintasunak, ustiapenen titulartasuna barne.

Honako ekintza estrategiko hauek proposatzen dira:

- Garraio publikoaren eta/edo garraio-zerbitzuen landa-inguruneko sarea hobetzea, eskaera kontuan hartuta.
- Emakumeek nekazaritzan egiten duten lana eta horiek landa-ingurunean duten eginkizuna ikusgai egitea, emakumeak nekazaritza-ustiapenen titularrak izan daitezela sustatuz.

5. Lehentasunezko ekintza zehatzak eta xehatuak proposatzea

Kapitulu honetan fitxa bat txertatzen da aurreko atalean zerrendatutako neurri/jarduketa-lerro bakoitzeko. Fitxa horiek honako elementu hauek hartzen dituzte barne:

- Izenburua
- Helburua
- Egin beharreko jarduketaren deskribapena
- Erreferentziak
- Tresna-mota
- Gai arloa

1.1 NEURRIA Zaintza-ekipamenduen zuzkidurarako lurzoruen erreserba

HELBURUAK:

- Zaintzarako ekipamendu-plaza nahikoak barne hartuko dituen eskaintza sortzeko lurzorua hornitzen direla bermatzea, dagozkion kokalekuan, kantitatean eta prezioan;
- Adingabeak eta pertsona zaharrak zaintzeko ekipamendu-plazaren estaldura hobetzea, zuzkidura EAeko herritarren premietara gerturatuz;
- Bizitza pertsonala eta profesionala bateragarriak izan daitezela erraztea, eta emakumeak lan-merkatu txertatu daitezela laguntzea, mendeko pertsonen zaintzarako beharrezko azpiegitura-eskaintza sortuz;
- Gaitasun funtzional murriztuak dituzten herritar zaharren ongizatea hobetzea.

DESKRIBAPENA:

Udalek nahitaez aplikatu beharko dituzten adierazpen batzuk garatuko dira, hala, udal-plangintzan mendeko pertsona zaharren eta adingabeen zaintza-ekipamenduak kokatzera xedaturiko lurzorua erreserba dadin. Adierazpen horietan, horiek aplikatzeko estandarrak eta lerro gidariak txertatuko dira. Estandarrak EAEn epe ertainera egongo den zuzkidura horien premia kuantifikatzeko azterketa baten arabera ezarriko dira, betiere gaur egun balioetsitako eskaerarekin alderatuta dauden ekipamendu-plazaren eskaintza kontuan hartuta. Finlandian mota horretako neurriak daude. Izan ere, herrialde horretan 0 eta 3 urte arteko haur-hezkuntzako plaza bat sortu behar da legez, jaiotzen den haur bakoitzeko.

ERREFERENTZIAK:

Sánchez de Madariaga, I. (2004): *Urbanismo con perspectiva de género*. Sevilla, Andaluziako Junta.
Damyánovic, D., Reinwald, F. & Weikmann, A. (2013): *Gender Mainstreaming in Urban Planning and Urban Development*. Viena, Viena hiria.

TRESNA MOTA: Arauemailea

GAI ARLOA: Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua

1.2 NEURRIA Zaintza Ekipamenduen Plana

HELBURUAK:

- Adingabeak eta pertsona zaharrak zaintzeko ekipamendu-plazen estaldura hobetzea, zaintzarako ekipamenduen plaza nahikoak sortuz; horiek beharrezko kokalekuan kokatu beharko dira, beharrezko kantitatean eta EAEko herritarren premietara egokitutako prezioan;
- Bizitza pertsonala eta profesionala bateragarriak izan daitezela, emakumeak lan-merkatura txerta daitezela, eta jaiotza-tasaren indizeak hobetu daitezela lortzea, zaintza-eginkizunetan laguntzeko azpiegiturak sortuz.
- Gaitasun funtzional murriztuak dituzten herritar zaharren ongizatea hobetzea.

DESKRIBAPENA:

Neurri honen helburua Zaintza Ekipamenduen Plan bat garatzea izango da, epe ertainera, euskal lurraldean eta hirietan mota horretako zuzkiduren sare bat eraiki ahal izateko. Txertatu beharreko ekipamenduen tipologia eta horiek bete beharreko baldintzak zehaztuko ditu planak. Hura diagnosi-azterketa zehatz batean oinarrituko da, eta Euskal Herriko adingabeen eta pertsona zaharren nahiz horiek zaintzen dituzten pertsonen eguneroko bizitza sostengatzeko beharrezko ekipamenduak zein diren ulertzera xedaturik egongo da. Egindako azterketaren bitartez, Planean ekipamendu horiek hornitzeko estandarrak zehaztu ahal izateko oinarria ezarriko da –hirian eta eskualdean–, eta kokapenari buruzko gomendioak gaineratuko dira. Era berean, azterketa horrek gaur egun dauden mota horretako zuzkiduren maila ulertzea ahalbidetuko du, baita jarduteko lehenetsuzko ordena bat finkatzea ere. Planean zaintza-ekipamenduen kokapena planteatzeko orduan, auzoan bertan oinez iristeko aukera hartuko da kontuan, eta garraio publiko bidez, ekipamendu handien kasuan. Neurri hori 1.1, 2.1 eta 4.1 neurriekin koordinatuta egongo da.

ERREFERENTZIAK:

Sánchez de Madariaga, I. (2004): *Urbanismo con perspectiva de género*. Sevilla, Andaluziako Junta.

Sánchez de Madariaga, I. (2009): “Vivienda, movilidad y urbanismo para la igualdad en la diversidad: ciudades, género y dependencia”. Hemen: *Ciudad y Territorio*, XLI. zk. (161-162), orria: 581-597

Gilroy, R. and Booth, C. Building Infrastructure for Everyday Lives. *European Planning Studies*, 7.3: 307-324, 1999.

TRESNA MOTA: Arauemailea

GAI ARLOA: Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua

1.3 NEURRIA Proiektu pilotuak

HELBURUAK:

- Pertsonen premiei hobeto erantzuteko azpiegiturak, hiriguneak eta ekipamenduak sortzea, betiere horien genero-rolak kontuan hartuta.
- Proiektu berritzaileak esperimentatzea, horien emaitza arrakastatsuek errepikatu ahal izateko eta/edo neurriak are gehiago instituzionalizatu ahal izateko; araudiaren kasuan, esaterako.
- Genero-ikuspegia hirigintzan eta lurralde-politiketan aplikatzearen abantaila buruzko kontzientziakzio soziala ikusgai egitea, ulertaraztea eta sustatzea.
- Genero-ikuspegia epe ertainera eta luzera arkitekturaren, hirigintzaren eta lurralde-politikaren esparruetan ezartzeko babes eta laguntza instituzionala eta publikoa lortzea.

DESKRIBAPENA:

Neurri honek genero-ikuspegia gaineratzen duten proiektu pilotuak egitea planteatzen du. Proiektu pilotuak estrategikoak dira jarduteko tradizioz ez duten politika-eremuetan aurrera egiteko, askotan, horietan inertiak, errutinak eta oztopoak agertzen baitira. Proiektu pilotuek ikuspuntu berriak txertatzea eta testatzea ahalbidetzen dute denbora-horizonte laburretan, horiek gauzatu ahal izateko baliabide mugatuak erabiliz.

Adibide interesgarria dugu laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera Vienan garatutako esperientzia; izan ere, generoa txertatu dute hirigintzan, eta proiektu pilotu estrategikoak gauzatu dituzte zenbait eremutan. Vienako esperientzia aitzindaria inspirazio gisa hartuta, honako eremu hauetan egin ahal izango lirakeke genero-ikuspegia txertatzen duten proiektu pilotuak: egoitza-erakinen eraikuntzan; eremu publikoaren berrurbanizazioan; auzoko mugikortasun-planean; parkeen berrurbanizazioan; argiztapen publikoan; segurtasuna lurpeko aparkalekuetan; partaidetza-aurrekontuetan.

ERREFERENTZIAK:

Damyanovic, D., Reinwald, F. & Weikmann, A. (2013): *Gender Mainstreaming in Urban Planning and Urban Development*. Viena, Viena hiria.

Sánchez de Madariaga, I. (2004): *Urbanismo con perspectiva de género*. Sevilla, Andaluziako Junta.

Kail, Eva, Vienna: Progress towards a fair shared city. Hemen: Sánchez de Madariaga, Inés eta Marion Roberts (ed.) *Fair share cities. The impact of gender planning in Europe*. Ashgate, Aldershot-New York, 2013.

TRESNA MOTA: Proiektua

GAI ARLOA: Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua

1.4 NEURRIA **Finantza-pizgarriak**

HELBURUAK:

- Genero-ikuspegia udalen eta beste aktore publiko eta pribatu garrantzitsu batzuen hirigintza- eta lurralde-planetan, -programetan eta -proiektuetan modu eraginkorren txerta dadila sustatzea.

DESKRIBAPENA:

Neurri honen bitartez, udalenzako eta beste aktore publiko eta pribatu batzuentzako laguntzen deialdi-programa bat garatuko da, hala, horiek genero-ikuspegia modu eraginkorren txertatzen duten planak, proiektuak eta programak egin ahal izan ditzaten. Ezaugarri horietako programa bat Europar Batasuneko URBAN programaren antzekoa izan liteke. Haren bitartez, udalek fondo batzuk lortzen dituzte deialdiak zehaztutako baldintzetara egokitzen diren jarduketak egin ahal izateko.

ERREFERENTZIAK:

Damyanovic, D., Reinwald, F.& Weikmann, A. (2013): *Gender Mainstreaming in Urban Planning and Urban Development*. Viena, Viena hiria.

Sánchez de Madariaga, I. (2004): *Urbanismo con perspectiva de género*. Sevilla, Andaluziako Junta.

Hemen: Gregorio Hurtado, S. (2012): *Políticas Urbanas de la Unión Europea desde la perspectiva de la planificación colaborativa. Las Iniciativas Comunitarias URBAN and URBAN II en España*.

Doktorego-tesia. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa.

TRESNA MOTA: Finantzariora

GAI ARLOA: Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua

1.5 NEURRIA **Hiria leheneratzeko garapen eta jarduketa berrietarako lerro gidariak**

HELBURUAK:

- Hiri-eremu berriak sortzeko edo lehendik daudenak leheneratzeko prozesuetan nahastuta dauden eragileei erreminta tekniko bat eskaintzea.
- Eusko Jaurlaritzako eta udaletako erakunde eskudunen barnean gaitasun teknikoa eta kontzientziarazioa hobetzea, hirigintzan eta eraikuntzan txerta dadin generoa.
- Genero-rolen arabera, pertsonen premiei hobeto erantzun dieten eta zaintza-erantzukizunak dituzten pertsonen bizi-kalitatea sustatuko duten hiri-eremuak garatzen laguntzea.

DESKRIBAPENA:

Neurri honen bitartez, generoa kontuan izango duen hirigintzaren garapenean eragile garrantzitsuek (instituzionalek eta ez instituzionalek) erabili ahal izateko zuzentarau teknikoen dokumentu bat sortzea gomendatzen da. Horiek honako eragile hauei xedaturik egongo dira batez ere: Eusko Jaurlaritzaren hirigintza eta eraikuntza arloetako teknikariei, udaletako hirigintza eta eraikuntza arloetako teknikariei, eta arkitekturako, hirigintzako eta higiezinaren sustapeneko profesionalei. Lerro gidari horiek gomendio bereziak garatu ditzakete honako hauetarako: a) hiri-garapen berrien plangintzarako; b) hiri-eremu finkatuetan hiria leheneratzeko jarduketaren proiekturako. Horiek honako gai hauek jorra ditzakete, gutxienez: hiri-eredua, eremu publikoa, egoitza-eraikinak, ekipamenduak, mugikortasuna eta segurtasuna. Eragile garrantzitsuek kontuan hartu beharreko izaera loteslerik gabeko gomendio batzuk proposatzen dira; gainera, erakunde eskudunek udalen eta beste aktore garrantzitsu batzuen aldetik horiek beregana ditzatela sustatzea gomendatzen da, horiek modu eraginkorrean ezarri ahal izateko mekanismo egokienak bilatuz. Mota horretako dokumentu teknikoen adibide bat Vienako Udalak egindako Eskuliburua da.

ERREFERENTZIAK:

Damyanovic, D., Reinwald, F. & Weikmann, A. (2013): *Gender Mainstreaming in Urban Planning and Urban Development*. Viena, Viena hiria.

Sánchez de Madariaga, I. (2004): *Urbanismo con perspectiva de género*. Sevilla, Andaluziako Junta.

Hemen: Gregorio Hurtado, S. (2015): "Factores relevantes en la introducción del urbanismo con perspectiva de género en Viena". Hemen: *La Ciudad Viva*, 7. zk., 17-35. orriak.

TRESNA MOTA: Gaikuntzarako tresna teknikoa (toolkit)

GAI ARLOA: Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua

1.6 NEURRIA **Etxebizitza Planean txertatu beharreko neurri zehatzak**

HELBURUAK:

- Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden familia gurasobakar amadunei eta aitadunei, eta genero-indarkeriaren biktimei etxebizitza bat izateko aukera bermatzea, diskriminazio-faktore potentzial erantsiak kontuan hartuta.
- Bizitegi-eskaintza familia-egitura anitzetara eta bizi-zikloetara hobeto egokitzea ahalbidetuko duten etxebizitzaren diseinu-irizpideak eta -estandarrek txertatzea.

DESKRIBAPENA:

Neurri honek honako hauek azpimarratzen ditu: a) genero-arrazoiak direla-eta, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeak, hala nola, familia gurasobakar amadunak edo aitadunak, gaitasun funtzional murriztuak dituzten eta bakarrik bizi diren emakume zaharrak, eta genero-indarkeriaren biktimak; b) etxebizitza-tipologiaren hobekuntza, bizi-estilo berriak, etxebizitzaren eta familien egitura anitzak, eta bizi-zikloen bilakaera kontuan hartuz. Planak a) atalean zehaztutako taldeei laguntzeko finantza-neurriak gaineratuko ditu, beste zaugarritasun-faktore batzuk kontuan hartuta. Gainera, erabilera horretarako lurzoru publikoko erreserbak zehaztuko ditu, eta a) ataleko bizitegi-eraikinekin ekipamenduak gaineratu ahal izateko legezko mekanismoak aztertuko ditu. Hainbat tipologia eraiki ahal izateko estandarrek gaineratuko ditu planak, familia-egituren gaur egungo aniztasunari erantzuteko. Proiektu pilotuak eraikitzeko araudi, finantza eta kudeaketa izaerako mekanismoak zehaztuko ditu planak. Proiektu pilotuei esker, a) atalean aipatutako talde zaugarriari eta b) atalean adierazitako etxebizitza-mota anitzei hobeto erantzuteko irtenbide berritzaileak esperimentatu ahal izango dira. Genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeentzako etxebizitzaren kasuan, segurtasun fisikorako berme egokienak eskainiko dituzten irtenbideak aztertuko dira. Gaur egun dauden esperientzien artean, Gijóngo Casa Malva dugu, emakumeen segurtasuna horien ikusgaitasunaren bitartez bermatzen duen proiektu esperimental bat. Tuisen Reuimtek Holandan diseinatutako beste adibide batzuek tipologia arkitektonikoen aldeko apustua egiten dute, ahalik eta diskreziorik eta anonimotasunik handiena eskaintzen duten kokalekuetan.

ERREFERENTZIAK:

Roberts, Marion. *Living in a man-made world. Gender assumptions in modern housing design*. Londres - New York: Routledge, 1991.
Ullman, Franziska, *Choreography of life*. Hemen: Sánchez de Madariaga, Inés eta Marion Roberts (ed.) *Fair share cities. The impact of gender planning in Europe*. Ashgate, Aldershot-New York, 2013.

TRESNA MOTA: Arauemailea eta finantzarioa

GAI ARLOA: Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua

1.7 NEURRIA Arriskutsutzat jotzen diren lekuak mapan kokatzea

HELBURUAK:

- Esplorazio-ibilbideak eginez, emakumeek eta beste talde sozial batzuek arriskutsutzat jotzen dituzten lekuak identifikatzea
- Ereku publikoko segurtasunik ezaren arazoari ikusgaitasuna ematea

DESKRIBAPENA:

Partaidetza-prozesuen bitartez, emakumeek eta beste talde zaugarri batzuek "arriskutsutzat" jotzen dituzten lekuak mapan kokatzea da neurri honen helburua. Ereku publikoko segurtasunaren edo segurtasunik ezaren pertzepzioa funtsezko alderdia da genero-ikuspuntutik, pertsonen mugimendu-askatasuna mugatzen duen faktorea baita, emakumeen artean batez ere. Askotan, emakumeek beren joan-etorriak mugatzen dituzte ohartuki, eta, beraz, baita hiri-ondasunen erabilera eta horietarako irisgarritasuna ere, nolako segurtasun falta eragiten dien. Lekuak arrazoi askoren eraginez jo daitezke ez segurutzat, honako hauen eraginez, esate baterako: argiztapena nahikoa ez delako, ibilbidean zehar ikusgaitasuna eragozten duten oztopoak daudelako, gertuko ingurunean jende gehiago ez dagoelako eta abar. Hiri-ingurunean hautematen den segurtasun-eza oso faktore garrantzitsua da, halaber, beste talde sozial batzuen kasuan, hala nola, adingabeen, pertsona zaharren, pertsona etorkinen eta LGTB kolektiboaren kasuan. Neurri honen helburua arriskutsutzat jotzen diren eremuak mapan kokatzea izango da, "Segurtasunerako esplorazio-martxak" izeneko partaidetza-prozesuaren bitartez. Bertan, hainbat herritarrek parte hartuko dute, adituek lagunduta. Metodologia hori Montrealeko eta Torontoko udalek garatu dute. Garraio-eremuak ere hartuko dira kontuan, lurpeko aparkalekuak barne. Aurrerago egin daitezkeen jarduketan, hautatutako lekuetan identifikatutako segurtasunik ezaren arazoak jorratu ahal izango dira. Montrealen, adibidez, metro-geltokien birmoldaketa-programa bat garatu da bertako garraio publikoaren sisteman segurtasuna hobetzeko.

ERREFERENTZIAK:

Women in Cities International –WICI- (2008): *Women's Safety Audits. What Works and Where?*, UN-Habitat Safer Cities Programme, Nairobi

European Forum for Urban Safety -EFUS- (2007): *Guidance on Local Safety Audits: A Compendium of International Practice*, Kanadako Gobernua, Paris.

Hiria Kolektiboa (2010): *Hiri-analisirako manuala..* Generoa eta eguneroko bizitza. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

TRESNA MOTA: Informazioa, gaitzeko tresna teknikoa eta jarduketa puntualak

GAI ARLOA: Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua

1.8 NEURRIA Ereku publikoen eta zuzkiduren proiekturako gidien prestaketa

HELBURUAK:

- Erabaki politikoak hartzeko gaitasuna duten pertsoneri eta teknikarier ememuak eta zuzkidura publikoak genero-ikuspuntutik diseinatzeko irizpideak, gomendioak eta adibideak jasoko dituzten erremintak eskaintzea, segurtasunaren arazoari arreta berezia eskainiz.
- Eremu publikoan eta zuzkiduretan, genero-ikuspuntutik segurtasuna eta beste faktore garrantzitsu batzuk hobetzea.

DESKRIBAPENA:

Neurri honen helburua genero-ikuspegia barne hartuko duten eremu publikoen eta zuzkiduren proiekturako eta berrikuntzarako gida bat edo gehiago prestatzea izango da, toki-administrazioek eta euskal autonomia erkidegoko administrazioek erabil ditzaten. Gida horrek edo horiek honako alderdi hauek, gutxienez, honako gai hauek jorratuko dituzte: eremu seguruen diseinua; familiarekin, adingabeekin, pertsona zaharrekin eta gaitasun funtzional murriztuak dituzten pertsonekin lotutako erantzukizunak dituzten pertsonen eguneroko premiei erantzungo dien diseinua –komun publikoak eta diseinu unibertsala, adibidez–; alderdi sinbolikoak eta irudikapenarekin lotutako alderdiak kontuan izango dituen diseinua. Gidaliburuak gomendioak eta adibideak hartuko dituzte barne. Horiek online formatua izango dute. Adibideak: Women Design Service britainiarren gidaliburuak. Gidaliburu horiek teknikarien eta erabaki politikoak hartzen dituzten pertsonen prestakuntza- eta gaitze-programetan erabiliko dira, baita horien jarduketa profesionalean ere.

ERREFERENTZIAK:

Royal Town Planning Institute -RTPI- (2003): *Gender Equality and Plan Making. The Gender Mainstreaming Toolkit*. RTPI, Londres.

Damyanovic, D., Reinwald, F. & Weikmann, A. (2013): *Gender Mainstreaming in Urban Planning and Urban Development*. Viena, Viena hiria.

Sánchez de Madariaga, I. (2004): *Urbanismo con perspectiva de género*. Sevilla, Andaluziako Junta.

TRESNA MOTA: Gaikuntzarako tresna teknikoa (toolkit)

GAI ARLOA: Hiri-ingurunea eta lurralde-antolamendua

2.1. NEURRIA **Genero-ikuspegia** jasoko duten mugikortasun-estatistiken berrikuspena

HELBURUAK:

- Garraio-estatistiketan egon daitezkeen genero arloko joerak ezabatzea, prozesuko fase guztietan.
- Pertsonen mugikortasuna haien genero-rolen arabera hobeto ulertuko duten kontzeptuzko kategoría berriak txertatzea, "zaintzaren mugikortasuna" aterkiaren kontzeptua batez ere.
- Zaintza-erantzukizunak dituzten pertsonen mugikortasun-patroiak ikusgai egitea eta hobeto kuantifikatzea ahalbidetuko duten estatistika sendoak izatea, pertsona horien mugikortasun-premiak garraio-politiketan hobeto txerta daitezen.

DESKRIBAPENA:

Neurri honek Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasun-estatistiken berrikuspen sistematikoa egitea proposatzen du, garraio-estatistikak egiteko orduan genero-joera guztiak ezaba daitezen, prozesuko etapa guztietan: inkestak, erabilitako kategoriak, datuak biltzeko metodologiak, analisiak, interpretazioa eta irudikapen bisuala diseinatzeko orduan. Horretarako, Inés Sánchez de Madariagak 2009. urtean Sustapen Ministerioaren Cedex-erako garatu zuen azterlan hau aplika daiteke: *Transporte metropolitano y grupos sociales: propuestas para una mejor planificación*. Metodologia horrek inkestetan erabilitako kategoriak berrikustea proposatzen du besteak beste, betiere etxea eta mendeko pertsonak zaintzearekin lotutako egunerokotasuneko eginkizunetarako bidaiak kuantifikatu eta hobeto deskribatzeko helburuarekin; izan ere, garraio-inkesta askotan horiek beste epigrafe batzuetan ezkutatuta egoten dira –batzuetan, ez dira kontuan hartu ere egiten, oinez egiten diren kilometro batetik beherako bidaietan, esaterako–. Era berean, "zaintzaren mugikortasuna" izeneko kategoría berri bat gaineratzea proposatzen da, pertsonak beste pertsona batzuk zaintzeko eta etxea mantentzeko egiten dituzten bidaiak kuantifikatu eta ikusgai egiteko.

ERREFERENTZIAK:

Sánchez de Madariaga, Inés « The mobility of care. Introducing new concepts in urban transportation». Hemen: Sánchez de Madariaga, Inés eta Marion Roberts (ed.). *Fair share cities. The impact of gender planning in Europe*. Ashgate, Aldershot-New York, 2013.

Sánchez de Madariaga, Inés: "From women in transport to gender in transport. Challenging conceptual frameworks for improved policy making". Hemen: *The Gender Issue: Beyond Exclusion*, special issue, Journal of International Affairs 67, 1, Columbia University, 2013.

TRESNA MOTA: Datuen eta estatistiken hobekuntza

GAI ARLOA: Mugikortasun jasagarria

2.2 NEURRIA **Genero-ikuspegia Mugikortasun Jasangarriko Planetan**

HELBURUAK:

- Hirietan eta beste lurralde-eremu batzuetan genero-ikuspegia eta, batez ere, zaintzaren mugikortasuna kontuan hartuko duten mugikortasun jasangarriko ereduak errotzeko Mugikortasun Planak erabiltzea.
- Udalei jarduteko proposamenak eta gomendioak eskaintzea, gai horri dagokionez modu eraginkorrean eta irizpide egokiekin jardun dezaten.
- Tartean diren erakundeen barnean kontzientzia eta ezagutza sortzea.

DESKRIBAPENA:

Neurri honen helburua da generoa eskualdeko, metropoliko eta hirietako Mugikortasun Jasangarriko Planen prestakuntzan trabeseko dimentsio gisa txertatzea. Gaur egun, plan horiek ez dute modu sistematikoan txertatzen genero-ikuspegia. Neurri honen bitartez, administrazio garrantzitsuek (batez ere udalek, probintziako garraio arloko agintariek eta Eusko Jaurlaritzako agintaritza eskudunak) Mugikortasun Planen prestakuntza- edo berrikuspen-prozesuetan genero-ikuspegia nahitaez txertatu behar izan dezatela proposatzen da. Era berean, gida berrikus dadila gomendatzen da, IHOBEn mugikortasun jasangarriko udal-planak gara daitezten. Neurri honek mugikortasun-proiektu pilotuak garatzea proposatzen du, genero-ikuspegia aintzat hartuta (ikus 1.3 neurria). Hura ezarri ostean, emaitzak nahiko azkar hautemango lirateke beharrezko baliabideak erabiliz gero. Proiektu horiek IHOBEn gidaren berrikuspena informa dezakete, emaitza praktikoak aztertuz. Horren adibide bat 2002 eta 2005. urteen artean Vienako Mariahilf distrituan genero-ikuspegitik garatutako mugikortasun-proiektu pilotua dugu. Bertan, eta Udalak aztertutako eta ebaluatutako ondorio positiboak direla-eta, mugikortasunean genero-ikuspegia txertatu dute beste distritu batzuetan eta hiriko Mugikortasun Planean.

ERREFERENTZIAK:

Sánchez de Madariaga, I. (2009): “Vivienda, movilidad y urbanismo para la igualdad en la diversidad: ciudades, género y dependencia”, *Ciudad y Territorio*, XLI. zk. (161-162).

Sánchez de Madariaga, Inés: “From women in transport to gender in transport. Challenging conceptual frameworks for improved policy making”. Hemen: *The Gender Issue: Beyond Exclusion*, special issue, *Journal of International Affairs* 67, 1, Columbia University, 2013.

CIVITAS (urterik gabe): *Smart choices for cities. Gender equality and mobility: mind the gap!* CIVITAS.

TRESNA MOTA: Arauemailea

GAI ARLOA: Mugikortasun jasangarria

3.1 NEURRIA **Genero-ikuspegia barne hartzen duten partaidetza-prozesuak**

HELBURUAK:

- Partaidetzaren bitartez, hiriko eta lurraldeko plangintza-prozesuetan emakumeei ahotsa eta eragiteko gaitasuna ematea, horiek eremu publikoari, arkitekturari, ekipamenduei eta mugikortasunari dagokienez dituzten premiak ikusgai egin daitezten.
- Talde sozial guztien partaidetzak lurraldean eta hirietan dauden bitartekoak azalertzeko, eta gizarte- eta jasangarritasun-kohesioa sendotzeko duen potentziala erabiltzea.
- Hiriko eta lurraldeko plangintza-prozesuetan auzoen tokiko gaitasuna sendotzea eta gizarte-berrikuntza sustatzea.

DESKRIBAPENA:

Euskal Autonomia Erkidegoko LAGen Berrikuspeneko Oinarrizko dokumentuak finkatzen duen moduan, partaidetza (governantza-eredu egoki batekin batera) da lurralde-eremuaren oinarria, eta, beraz, hura politika publikoen elementu sendo bat da. Neurri hau asmo horrekin finkatu da, baita hitz egiteko eta politika publikoen eraketan eragiteko gaitasun gutxien duten gizarte-taldeentzat partaidetza-prozesuetara iritsi ahal izateak duen garrantzia kontuan hartuta ere. Emakumeek hirigintzan parte hartu ahal izatea funtsezkotzat jotzen da genero-roleri hobeto erantzungo dieten auzoak eta hiriak sortzeko. Horien ezagutza ez aditua prozesu osoan zehar txertatzeak espazio publikoaren, ekipamenduen eta mugikortasunaren ikuspuntu eta esperientzia bat izatea ahalbidetzen du; izan ere, horiek abiapuntuko diagnostiko adituetatik kanpo geratu ohi dira, baita esku hartzeko lehentasunetatik ere. Emakumeak partaidetza-prozesuetan nahasteak eta horien lidergoa sustatzeak aurrerapauso garrantzitsuak eragin ditzake gizarteratzeari, gizarte-berrikuntzari eta hiri-politiken eraginkortasunari dagokienez. Honako hauek dira neurri honen helburuak: i) partaidetza-prozesuak diseinatzea, emakumeek horietan duten presentzia erraztu, eta hala, horiek erabaki txikietan eragina izan dezaten, ordutegiei, eztabaidatzeko formatuei, adingabeen zaintzari eta abarrei dagokienez, esaterako; ii) emakumeei bideratutako partaidetza-prozesuak antolatzea, betiere horiekin nahastutako beste faktore batzuk kontuan hartuta, adina, etnia/arraza, gaitasun funtzionala edo egoera sozioekonomikoa eta familia-egoera, esaterako.

ERREFERENTZIAK:

Sánchez de Madariaga, I. (2004): Urbanismo con perspectiva de género. Sevilla, Andaluziako Junta.
Booth, Christine, Jane Darke, and Susan Yeandle, Coords. *La vida de las mujeres en las ciudades ; la ciudad un espacio para el cambio*. Madrid: Narcea, 1998.

TRESNA MOTA: Erabakitze eta kudeatzeko prozesuen hobekuntza

GAI ARLOA: Gobernantza

3.2 NEURRIA **Sektore garrantzitsuetan emakumeen sustapenerako eta lidergorako plana**

HELBURUAK:

- Emakumeek erabaki politikoak eta teknikoak hartzeko lanpostuetan duten presentzia hobetzea, hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren esparruan, eta administrazio eta departamentu garrantzitsu guztietan.
- Talentuari ahalik eta etekin handiena ateratzea, pertsonen generoak horien lan-garapenerako aukeretan eragiten ez duela bermatuz.
- Erabakiak hartzeko prozesuen emaitzak hobetzea, taldeetan genero-aniztasun handiagoa ahalbidetuz.

DESKRIBAPENA:

Neurri honen helburua emakumeek erabaki politikoak nahiz teknikoak hartzeko lanpostuetan duten presentzia sustatuko duen Plan bat egitea da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendurako erakunde eta lurralde-administrazio garrantzitsuetan. Planak gaur egun emakumeen sustapen profesionala oztokatzen duten joerak eta oztopoak kentzera bideratutako egiturazko neurriak ezarriko ditu, betiere lan-sektore horietan txertaketa bertikal hobea lortu eta kristalezko sabaia murrizteko helburuarekin. Planak honako hauekin lotutako alderdiak hartuko ditu kontuan elementu garrantzitsu gisa: kontzientek edo inkontzientek diren genero-joerak, eta horiek prozesu eta arauen bitartez adierazten diren modua; erabakiak hartzeko prozesuen gardentasuna; ingurunearen eta lan-baldintzen modernizazioa, betiere genero-rolak, laneko bizitzaren eta bizitza pertsonalaren arteko kontziliazioa, eta jazarpenaren prebentzioa kontuan hartuta. Adierazpenak eta helburuak ezarriko ditu, eta hedapen-plan bat izango du.

ERREFERENTZIAK:

Sánchez de Madariaga, Inés et al: *Structural change of research institutions. Enhancing excellence, gender equality and efficiency in research and innovation*, Europako Batzordea, Brusela, 2011. Espainiako edizioa.

Sánchez de Madariaga, Inés, « Opening the gates. A case study of decision-making and recognition in architecture ». Hemen: Sánchez de Madariaga, Inés eta Marion Roberts (ed.) *Fair share cities. The impact of gender planning in Europe*. Ashgate, Aldershot-New York, 2013.

TRESNA MOTA: Erabakitze eta kudeatzeko prozesuen hobekuntza

GAI ARLOA: Gobernantza

3.3 NEURRIA Erabakiak hartzeko prozesuetan generoaren ezagutza aditua txertatzea

HELBURUAK:

- Lurralde-antolamenduko politikak, planak eta proiektuak zehaztu eta gauzatzeko prozesu osoan zehar genero alorreko beharrezko ezagutza aditua txertatzen dela bermatzea.
- Planetan, politiketan eta proiektuetan genero-dimentsioak kaudimen teknikoko bermekin txertatzen direla ziurtatzea.

DESKRIBAPENA:

Neurri honen helburua kudeaketa-prozesuak eta erabakiak hartzeko prozesuak hobetzea da, neurri jakin batzuk abian jarri eta genero arloko ezagutza aditua erabakiak hartzeko prozesuetara dagokion denboran eta moduan txertatzen dela bermatzeko. Horretarako, momentuko egoeraren kontu-ikuskapena egingo da, baita EAEn eta udaletan LAG horiek zehazteaz eta ezartzeaz arduratzen diren departamentuetan dagoen genero alorreko ezagutza adituko baliabideen kasuan ere. Hortik aurrera, erabakiak hartzeko prozesuen funtzionamendua hobetzeko proposamenak egingo dira, hala, politiken, planen, programen eta proiektuen definizioan genero alorreko ezagutzen beharrezko inputak kontuan har daitezten, *zehazten hasten direnetik gauzatzen diren momentura arte*. Erakundeetan dagoen genero alorreko ezagutza adituari ahalik eta etekinik handiena aterako zaio, bertan lan egiten duten berdintasun-eragileen edo berdintasun-unitateen bitartez, eta beharrezkotzat jotzen denean, kanpoko ezagutza aditura joko da. Genero alorreko Pertsona Adituen Aholku Batzorde bat sortzea gomendatzen da; bertan, barneko eta kanpoko pertsonak parte hartuko lukete, eta hark goi-mailako elkarrizketa-gaitasuna izango luke. Bereziki zainduko da genero-ikuspegia beranduago txerta ez dadila, hau da, dagoeneko finkatuta dauden politiketara, programetara, planetara edo proiektuetara atxikitako alderdi baten gisa txerta ez dadila, horrek nabarmen mugatuko bailuke haren garrantzia eta eraginkortasuna.

ERREFERENTZIAK:

Sánchez de Madariaga, Inés, « Looking Forward. Moving Beyond Trade-offs ». Hemen: Sánchez de Madariaga, Inés eta Marion Roberts (ed.) *Fair share cities. The impact of gender planning in Europe*. Ashgate, Aldershot-New York, 2013.

Sánchez de Madariaga, Inés et al: *Structural change of research institutions. Enhancing excellence, gender equality and efficiency in research and innovation*, Europako Batzordea, Brusela, 2011. Espainiako edizioa.

TRESNA MOTA: Erabakiak hartzeko eta kudeaketarako prozesuen hobekuntza

GAI ARLOA: Gobernantza

4.1 NEURRIA **Eskaeraren araberako garraio-zerbitzuak**

HELBURUAK:

- Emakumeen, horiek zaintzen dituzten pertsonen eta lokomozio-baliabide pertsonaletara sarbide mugatua duten gizarte-taldeen autonomia pertsonala sustatzea.
- Landa-ingurunean gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna hobetzea, emakumeek zerbitzuetara eta enplegura sarbidea izan dezatela erraztuz.
- Landa-eremuen eta eskualdeko zaintza-ekipamenduak kokatzen diren eremuen arteko konektibitatea hobetzea.
- Gizarteari eta ingurumenari dagokionez mugikortasun jasangarriagoa sustatzea.

DESKRIBAPENA:

Emakumeen mugikortasun-premia zehatzei erantzungo dieten garraio publikoko zerbitzuak hornitzea izango da neurri honen helburua, zaintza-erantzukizunak dituzten pertsonen eta zaintzak jasotzen dituzten pertsonen mugikortasun-premiei arreta berezia eskainiz. Hainbat arrazoi direla eta –ibilgailu pribatua erabiltzeko aukera gutxiago, diru-sarrera txikiagoak, lehenago uzten diote gidatzeari, genero-erolek eragindako mugikortasun-patroi desberdinak eta bizi-itxaropen handiagoa–, emakumeek eta gizonak oso mugikortasun-patroi eta -premia desberdinak dituzte. Landa-ingurunean, mugikortasun-patroi eta -premia horiek ezaugarri bereziak dituzte, baita zailtasun handiagoak ere, bertan, garraio publikoa oso gutxitan izaten baita aukera bat, eta hura da, hain zuzen ere, emakumeek gehien erabiltzen duten garraioa. Landa-ingurunean emakumeek mugikortasun mugatuagoa dute hiri-ingurunean bizi diren emakumeekin eta, oro har, gizonezkoekin alderatuta. Eskaeraren araberako garraio-zerbitzuen diseinua premien alde aurretiko azterketetan oinarrituko da. Horiek nahastutako beste faktore batzuk hartuko dituzte kontuan, adina, gaitasun funtzionala, maila sozioekonomikoa, arraza eta etnia, esaterako. Horretarako, eskualdeko zaintza-ekipamenduen planarekin koordinatuta egongo den azterketa bat egitea proposatzen da (ikus 1.2 neurria). Tamaina txikiagoko nukleoek kasuan, eskaeraren araberako garraioaren aukera planteatu liteke deskribatutako mugikortasun-premiei erantzuteko.

ERREFERENTZIAK:

Transportation Research Board (2004, 2009): Research on Women's Issues in Transportation Conference, Report of conference proceedings, TRB, Washington, D.C.

Rohmer, H. (koord.) (2007). *Gender Mainstreaming European Transport Research and Policy. Building the Knowledge Base and Mapping Good Practices*

TRESNA MOTA: Arauemailea eta finantzarioa

GAI ARLOA: Landa-ingurunea

4.2 NEURRIA **Nekazaritza-sektorean emakumeen jarduera ekonomikoa sustatzea**

HELBURUAK:

- Emakumeek nekazaritzan duten partaidetza sustatzea, lan-aukera hori sendotuz errazago lortuko baita emakumeen eta gizonen arteko landa-inguruneko berdintasuna.
- Landa-ingurunean mantentzea edo jarduera hori gauzatzeko asmoz bertara joatea erabakitzen duten emakume gazteei nekazaritza-jarduera erakargarri egitea.
- Emakumeek landa-inguruneko nekazaritza-ustiapenetan orain arte egin duten lana ikusgai egitea.
- Zeharka, ikuspuntu sozioekonomikotik egonkorragoa izango den landa-ingurune batera eta ingurumen-jasangarritasunaren hobekuntzara gerturatuko gara.

DESKRIBAPENA:

LAGen Berrikuspenerako Oinarrizko Dokumentuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-ingurunearen arazo nagusia ez da despopulazioa, hauskortasun sozioekonomikoa baizik, erakarpen- eta eragin-indar garrantzitsuen eraginpean baitago hiriko egitura sozioekonomikoari dagokionez. Landa-ingurunean enplegua sustatzea funtsezkoa da hura horrela mantentzeko, eta era berean, nekazaritza-jarduerak landa-inguruneko garapen ekonomikorako duen garrantzia azpimarratuko da. Neurri hori aintzatespen horretan kokatzen da; hala, emakumeek nekazaritza-jardueran gauzaten duten lana sustatuko da, horiek oso gutxitan bereganatzen baitute eginkizun protagonista, tradizioz, emakumeak familia-unitatearen testuinguruan bakarrik kokatu izan baitira. Neurri honen bitartez, nekazaritza-sektoreko emakumeei laguntzeko zenbait neurri sustatuko dira, honako hauek, esate baterako: landa-inguruneko emakumeen jarduera eta berrikuntza sustatzeko laguntzak; nekazaritza-ustiapenen titulartasun partekatua sustatzeko eta emakumeak titular gisa sustatzeko neurriak, titulartasun nagusia emakumeek bereganatzen duten ustiapenei laguntza publikoak emanez; aholkularitza ekonomiko, fiskal edo teknologikorako zerbitzuak, baita landa-inguruneko emakumeen enpresa-jarduerarako Europako laguntzak eskuratzeko ere.

ERREFERENTZIAK:

IGUALAR Lankidetzeta Proiektua (2011): *Nuevas realidad y viejos esquemas - Empresa, política y familia: Estudio sobre el protagonismo público de mujeres y hombres en el medio rural*. Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Inguruetako Ministerioa, Madril.

Landa Ingurunearen Garapen Jasangarrirako Zuzendaritza Orokorra (2009): *Buenas Prácticas en Desarrollo Rural e Igualdad*, Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Inguruetako Ministerioa, Madril.

TRESNA MOTA: Arauemailea eta finantzarioa

GAI ARLOA: Landa-ingurunea